

Edorta Arana

EHUKO GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEKO IRAKASLEA

Bitsa

Ikaragarria da hedabideek sortzen duten zurrunbiloa. Azken egunotan egunkariak, irratiek, telebistek eta webguneek aurkitu dute zertaz hitz egin eta, noski, ez dute aukera galdu.

Astebete eskasean, Erresuma Batuko printze baten ezkontza, Karol J. Wajtylaren dohatsu izendapena, Bin Laden akatu izana eta Bilduren ilegalizazioa aipatu dituzte barra-barra. Hedabidearen jatorriaren eta ildo editorialaren araberak hauetariko gai bakoitzaren tratamendua oso desberdina izan da, nola bestela.

Hala ere, deigarriak izan dira esaterako, nolako goxotasunaz (gozotasunaz, esan beharko nuke) murgildu diren William eta Caherineren ezkontzaren gaian. Ematen zuen tarte baterako, ez zitzaiola inori inporta monarkiaren legitimotasunaz dagoen eztabaida, krisia eta hipokresia! Telebistek eta kutxé paperaz ateratzen diren aldizkariak sekulako pagotxa izan dute ditxosozko ospakizunarekin.

Bestetik, Joan Paulo II.a zena santutzeko bidean jarri dutela izan da maiatzeko lehen egunetako beste berri potoloetako bat. Aurrekoaren kasuan bezala, kutsu erlijiosoaren gainetik ikuskizuna gailendu da.

Bi hauetan, notizien helburua eta kontatzen zena-
ren subjektuak nortzuk ziren agerian zegoen. Lehena-



DANI BLANCO

ren kasuan, monarkia britainiarraren jarraipena ziurtatuko duen kontratua sinatu zuten eliza bateko aldaean. Bestean, figura mediatiko indartsua bilakatu zen pontifizea erabili nahi izan dute Vaticanoko ikonografikari berritasun astindu bat eman guran.

Hasieran aipatu ditugun beste bi albisteak ere mamitsuak suertatu dira. Bin Ladenen kasuan, “hil” eta “erail” berben esangurari dagokionez, egunkari eta telebisten webguneek batera ala bestera jo dute, berdinak balira. Eta ez dira. Dena dela, oraingoan, ez dio axola, ez baitiote inori konturik eskatuko. Eta ohi bezala irabazleak ehizatutako etsaiaren burua erakutsi nahi du. Hori bai, tentu handiz esaten digute Al Kaedako buruzagia omen zenaren gorpu desitxuratua ikustea desatsegina izan daitekeela. Estetika kontua. Etikari jaramonik ez.

Bildu ere heldu da egunotan albiste-gi eta agerkari digital guztietara. Auzitegi Gorenean astebukaeretan ere lan egiten dutela erakutsiz, baita maiatzaren lehenean ere. Judikaturaren zentraltasuna irudikatu nahi izan dute, ilegalizazioaren bidean. Hori bai, PPK ez du askorik itxaron behar izan aitortzeko bi alderdi espainiar nagusien itunaren ondorioa dela Gorenaren epaia. Nork agintzen duen eta ehiza domin hori nori dagokion garbi gera dadin esan beharrekoa. ■

« Ematen zuen tarte baterako,
ez zitzaiola inori inporta
monarkiaren legitimotasunaz
dagoen eztabaida, krisia
eta hipokresia!
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Uzten naute, erabat jota. Ikasi, ikasi liteke erlatibitate legea azterketa gainditzeko lain, baina hamabi urte preso egondakoaren denbora hori ez dela izugarria onartzea, ezina zait. Eta tokatu zait entzutea. *Gatzak* eta Agirrek hogeita hamarreko marra gainditu ostean, hogeikoa ere urria dirudi, edozein dela ere jarduna markak hauste hutsei irlandar zerbezaren izena daramana liburu aipatuena dela, best-sellerra, kontantzen hartzen badugu. Horiek kartzelaratu zituztenean, gure seme-alabak Seaskako ikasleak ziren, Renault-12ak punta-

K. O.

ko modeloak, idazteko Olivetti elektrikoak bulegotako erreginak eta trenak marroiak. Pezetak eta liberak elkar trukatu beharrak Inchauspe nafar jaun feudala bankari bilakatu zuen. Ordulariak mekanikoak ziren eta konponentzaileak artisaun estimatuak. Langileek sobretan jasotzen genuen salarioa, eta gutako askok ez genuen kontu korronterik. Gogoratzen ari naizen gizartea, gure lantokiko gazte unibertsitari gazteeni santimamiñekoa iruditzen zaie. Hori zen beren markak inork gainditu behar izatea nahiko ez luketen *Gatzak* eta Agirrek utzitako mundua. Marka izugarria ez al da? Hau marka! ■